



PIRAGUISMO HASTAPENENKO IRAKASLE IKASTARORAKO DEIALDIA (Federazioaren titulua)

1. LEKUA, DATA ETA ORDUTEGIAK

Ikastaro hau Piraguismoko Euskal Federazioak sustatu du.

	LEKUA	DATAK	ORDUTEGIA
SARRERA PROBA	PASAIA	2018/05/25	15:00h-17:00h
Ikastaroa	PASAIA	2018/05/26	17:00-21:00h
		2018/05/26	9:00-14:30 eta 15:30-20:30h
		2018/05/07	9:00-14:00 eta 15:00-16:00h

Egunero saio praktikoak egingo dira, eta horregatik beharrezkoa izango da uretako arropa eramatea eguneroko bi saiotarako.

Eguna	Hila	Teoria	Praktika
25	05	17:00-21:00	
26	05	9:00-14:00 15:00-16:00 20:00-21:00	16:00-20:00
27	05	09:00-13:00 15:00-17:00	9:00-13:00

Tokia: Praktikoak eta teorikoak: **Orio. Arraunetxe Arraunketa eta Piraguismoko Teknikazio Zentroa.**
Orioko Arraun Elkarte

Aurrez aurreko azterketaren data: 2018/05/27. 16:00etatik 17:30era.

Errekuperazioko azterketaren data: 2018/06/29 18.00etatik 19:30era.

2. PRESTAKUNTZAREN HELBURUA

- o Hastapeneko irakasleentzako ikastaroa Federazioaren prestakuntza jardura bat da, eta bertan ikasgai hauek ematen dira: oinarrizko ezagupenen arloa, metodologia eta piraguismoaren didaktika, material eraikuntza eta mantentzea, segurtasun aktiboa eta prebentziozkoa, programazioa, palakadak emateko maniobrak eta teknika.

Prestakuntza hau kirolaren hastapenetan aritu nahi duten teknikariei bideratua dago. Zehazkiago, Federazioaren ikastaro honetan lortu beharreko gaitasun orokorrak hauexek dira:

- o Sustatu, bultzatu eta kirol edo modalitatearen oinarrizko hastapena egitea lehen hogeitorturutan.
- o Kirolariak zaintzea eta laguntzea, eskola kirol edo kirol federatuarenak diren jardura eta lehiaketetan parte hartu behar dutenean.

Ikastaroaren helburu nagusia da piraguismoaren kirolean teknikari gisa oinarrizko mailan behar duten formakuntza ematea. Horretarako helburu osagarri batzuk bereiz ditzakegu:

- o Piraguismoaren oinarrizko ezagupenak, elementuak eta espezialitateak deskribatzea.
- o Palakaden exekuzio teknikoak eta oinarrizko maniobrak balioestea piraguismoko kirol hastapenean.
- o Palakadak ematean eta oinarrizko maniobretan egiten diren akatsik ohikoenak identifikatu eta haiek zuzentzeko atazekin lotu.
- o Palakadak ematean eta oinarrizko maniobretan egiten diren akatsak identifikatu eta zuzentzeko teknikak aplikatzea.
- o Piraguismo hastapeneko programazioaren elementuak eta antolakuntza deskribatzea.
- o Dinamizazio, ebaluazio eta kontrol prozedurak deskribatzea eta aplikatzea.
- o Piraguismo hastapeneko prozesuan informazio bilketan kolaboratzea.

3. EGITURA ETA EZAUGARRIAK

Eduki didaktikoak:

- o Oinarrizko ezagupenak
- o Palakadak emateko teknika eta oinarrizko maniobrak hastapenerako propio diren ontzietan.
- o Palakadak emateko teknika eta oinarrizko maniobrak hastapenerako propio diren ontzietan.
- o Piraguismo hastapenaren plangintza eta programazioa
- o Piraguismoaren irakaskuntzan praktika didaktikoa.
- o Materiala eraikitzea eta mantentzea.
- o Segurtasun aktiboa eta prebentziozkoa.

BERARIAZKO BLOKEA		
MODULUAK / ARLOAK	AURREZ AURREKO ORDUAK	URRUNEKO PRESTAKUNTZA ORDUAK
Oinarrizko ezagupenen arloa, metodologia eta piraguismoaren didaktika	20	
GUZTIRA	20	

Prestakuntzaren ezaugarriak:

- o Aurrez aurreko saioak: orduen % 100. Ezinbestekoa da bertaratzea. Saio guztietara joaten ez denak azterketa egiteko eskubidea galduko du. Ikasgai bakoitzeko saio praktikoetara joatea ere derrigorrezkoa da.
 1. Azterketak aurrez aurrekoak izango dira.

4. SARTZEKO BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

- o Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo ondorio akademiko baliokidea duen beste titulazio bat ziurtatzea.

* Bigarren Hezkuntzako graduatuaren (DBH) baliokideak diren tituluak:

- a) Teknikari laguntzaile titulua.
- b) Teknikari titulua.
- c) Batxilergo Balioaniztun Bateratuaren bigarren maila gainditua izatea, edo bestela, Batxilergo Balioaniztun Bateratuaren lehenengo bi mailetan gehienegoz ere bi ikasgai gainditu gabe izatea.
- d) Goi mailako batxilergo titulua.

- e) Irakaskuntza ertainen erreformako ziklo esperimentalaren lehenengo zikloko bigarren maila gainditua izatea.
- f) 1963ko planeko hirugarren maila gainditua izatea, edo Arte Aplikatuen eta Artisau Lanbideen irakaskuntzen bigarren maila esperimental gainditua izatea.
- g) Ofizialia Industrialaren titulua.
- h) Aurreko ikasketa horien baliokide akademikotzat jotzen diren beste ikasketa batzuk gainditua izatea.
- k) Batxilergoaren baliokide diren titulu eta egoera guztiak (taularen eskuinaldean zehazten direnak).

*** Eskola Graduata ez da DBHren baliokidea.**

* DBHko titulua ez badute, DBH ordezkatzen duen heldutasun-proba gainditu ondoren sar daiteke (Gradu Ertaineko Lanbide Heziketara sartzeko proba gaindituta ere bai). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtean behin egiten du proba hori. Informazio gehiago nahi izanez gero: edo

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dic12/es_9523/pruebas_madurez_c.html)

[573/es/contenidos/informacion/dic12/es_9523/pruebas_madurez_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dic12/es_9523/pruebas_madurez_c.html).

- o Berariazko sarrera-proba gainditzea. Ikus 5. Paragrafoa. **1. Eranskina. Sarrera probaren ezaugarriak.**

5. BERARIAZKO SARRERA PROBA

Proba horren xedea da Piraguismo hastapena emateko irakaslegaiak egiaztatzea horrelako prestakuntza bat jarraitzeko badituela beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasun orokorrak eta berariazkoak, eta halaber beraren segurtasuna bermatzea ikastaroaren jarduera praktikoetan.

- o Sarrera probaren ezaugarriak hauek dira: **Ikus 1. Eranskina**
- o Oharrak:
 1. Goi mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen dutenek -uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat-, ez dituzte bete beharko haiei dagokien kirol modalitate edo espezialitateari dagozkion baldintza bereziak. Kasu horretan, interesdunak proba baino lehen Federazioaren aurrean egiaztatu behar du dokumentazioarekin edo egiaztatze ziurtagiriarekin honen aurreko paragrafoan zehaztutakoa dela.
 2. Ezintasunen bat dutenen kasuan, sarrera-probako epaimahaiari aholkularitza eman dakiok, ezintasun-mailak prestakuntza aprobetxatzeko, mailari dagozkion gaitasunak eskuratzeko eta lanbidean behar bezala jarduteko aukerarik ematen ote duen aztertze.

6. HIZKUNTZA

- o Euskara

7. DIPLOMA

- o Prestakuntza osoa gainditzen dutenek ondorengo diploma ofiziala eskuratuko dute:

Piraguismo hastapeneko irakaslea. Federazioaren titulua.

8. IZEN-EMATEAK

Izena non eta nola eman:

- o **Euskadiko Kanoe federakuntza**
- o Errotaburu pasealekua 1-3.solariua
- o 20018 Donostia (Gipuzkoa)
- o Telefonoa: 943051365
- o E-maila: info@fvpiraguismo.org

Piraguismoko Euskal Federazioak eskubidea du ikastaroa bertan behera uzteko baldin eta gutxienez 12 ikasle ez badaude. Kasu horretan itzuli egingo da ordaindutakoa. Plaza baino inskribatu gehiago badago, inskribatze hurrenkera errespetatuko da (beharrezko dokumentazio aurkeztuta eta ordaindu beharrekoa ordainduta) eta sarrera probaren balorazioa. Onartu ezean, interesdunari abisatu egingo zaio.

- o Izena emateko epea: **Maiatzaren 21 arte, astelehena:**
- o Aurkeztu beharreko dokumentazioa (ez da onartzen posta elektronikoz bidaltzea. Aurrez aurre edota posta bidez):
 1. NAREN fotokopia.
 2. Beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa edo, izan ezean, haren ordezkari heldutasun proba gainditu izana. Aurkez daitezkeen agiriak:
 1. Titulu akademikoaren **fotokopia konpultsatua**, edo tasak ordaindu izanaren frogagiria.
 2. Hezkuntza Ordezkaritzek egindako titulu ziurtagiriaren **originala edo fotokopia konpultsatua**.
 3. Norberaren ziurtagiri edo espediente akademiko ofizialaren **originala edo fotokopia konpultsatua** (ikasketak egin ziren zentroan eskatzen da). Ziurtagiri ofizialak Eusko Jaurlaritzaren logoa du).
 4. Kalifikazio-liburuaren **fotokopia konpultsatua** (eskolatze-liburua)
 3. Federazioko lizentziaren kopia
 4. Inskripzio orria
 5. Transferentzi ordainagiria (ordainketa kontu zenbaki honetan egin behar da: 3035.0059.80.0590020165)

- o Plaza-kopurua: **20**

Prezioa:

Atala	Diru kopurua
Sarrera-proba	25,00 €
Ikastaroaren Matrikula Federatuak	125,00 €
Ikastaroaren Matrikula Ez-Federatuak	250
Federatuak GUZTIRA	150 €
	275€

(Prezioak "Piraguismo hastapeneko irakaslea" federazio tituluaren tramitazioa barne hartzen du; azken hau 30 euro izaten da)

9. PASAITARRENTZAKO LAGUNTZA

Pasaitarrentzat eta pasaitar ez izan arren, Pasaia elkarteren bateko kide direnentzat dohainik izango da ikastaroa. Hala ere, izena ematearekin batera, ikastaroaren matrikularen diru kopurua aurreratu egin beharko dute. Aurreratzen zaien diru kopurua ikastaroa bukatzen dutenean itzuliko zaie, baldin eta egiaztatzen badute saio guztietara bertaratu direla, saioei probetxu atera dietela, praktikak Pasaian egingo dituztela eta ikastaro osoa gainditu dutela.